Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko martxoaren 18a, asteartea — 52 — Martes, a 18 de marzo de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ANDOAINGO UDALA

*Andoaingo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen emakida araupetzen duen berariazko ordenantzaren aldaketaren behin betiko onespena.*

Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2024ko abenduaren 26ako batzarraldian, hasierako izaeraz Andoaingo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen emakida araupetzen duen berariazko ordenantzaren aldaketaren aldaketa onartzeari buruzko erabakia hartu zuen, zeina horrela idatzita geldituko den:

II. Atalean, hau da, euskara ikasteko eta hobetzeko izenekoan:

* Aldatu egiten da 7. artikulua, onuradunek bete beharreko 2. baldintza, honela jasota zegoena:

«Andoainen erroldatuta egotea dirulaguntza eskatzen denetik zenbatzen hasita eta sei hilabete lehenagotik, gutxienez.»

Behin aldatuta, honela geratuko da:

«Andoainen erroldatuta egotea dirulaguntza eskatzen denean».

* Aldatu egiten da 7. artikulua, onuradunek bete beharreko 4. baldintza, honela jasota zegoena:

«Gutxienez % 85 bertaratzea egiaztatzea.»

Behin aldatuta, honela geratuko da:

«Gutxienez % 75 bertaratzea egiaztatzea.»

* Aldatu egiten da 7. artikuluan, honela jasota zegoen testua:

«Habek ikasturte horretarako eskaintzen dituen dirulaguntzak eskuratzeko aukerarik ez izatea.»

Behin aldatuta, honela geratuko da:

«Orokorrean, Habek ikasturte horretarako eskaintzen dituen dirulaguntzak eskuratzeko aukerarik ez izatea. Salbuespenak balira, urtero argitaratzen den dirulaguntza deialdian zehaztuko dira.»

* Erantsi egiten dira honako bi paragrafoak 8 artikuluaren bukaeran:

«Multzo horietaz gain, urteko deialdian ezarri ahalko dira beste batzuk, beharren arabera.»

«Era berean, Udalak lan-ildo estrategikotzat jotzen dituen kolektiboentzako zuzeneko dirulaguntzak bideratu ahal izango dira, hasiera batetik ikastaroak doakoak izan daitezen herritar horientzat.»

* Kendu egiten dira 9. artikuluaren lehenengo eta bigarren paragrafoak, eta erantsi egiten da beste bat; honela jasota zeuden bi paragrafoak:

«Dirulaguntza arrunta ikastaroaren matrikularen % 85ekoa izango da, gehienez ere.»

«Barnetegietako ostatu gastuei dagokienez, Udalak, gehienez ere, % 50eko dirulaguntza emango du.»

Behin aldatuta, honela geratuko bi paragrafoak ordezkatzen dituen paragrafo bakarra:

«Dirulaguntzaren gehienezko ehunekoak eta kopuruak urtero argitaratzen den deialdian jasoko dira.»

## AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

*Aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza específica reguladora de las ayudas económicas para actividades de fomento del euskera en Andoain.*

El Pleno Municipal en sesión celebrada con fecha 26 de diciembre de 2024 aprobó con carácter inicial la modificación la modificación de la ordenanza específica reguladora de las ayudas económicas para actividades de fomento del euskera en Andoain, el cual quedará redactada de la siguiente forma:

II. En el apartado de aprendizaje y mejora del euskera:

* Se modifica el artículo 7, requisito 2 a cumplir por los beneficiarios, que se recogía como sigue:

«Estar empadronado en Andoain al menos con seis meses de antelación a la fecha de solicitud de la subvención.»

Una vez modificado quedará:

«Estar empadronado en Andoain en el momento de solicitar la subvención.»

* Se modifica el artículo 7, requisito 4 a cumplir por los beneficiarios, que se recogía como sigue:

«Acreditar asistencia al menos 85 %.»

Una vez modificado quedará:

«Acreditar asistencia al menos al 75 %.»

* Se modifica el artículo 7, que queda redactado de la siguiente forma:

«No tener acceso a las subvenciones que Habe ofrece para ese curso.»

Una vez modificado quedará:

«En general, no tener acceso a las subvenciones que Habe ofrece para ese curso. En caso de excepciones, se especificarán en la convocatoria de subvenciones que se publica anualmente.»

* Se añaden los dos apartados siguientes al final del artículo 8:

«Además de estos conjuntos, en la convocatoria anual podrán establecerse otros en función de las necesidades.»

«Asimismo, se podrán destinar subvenciones directas a los colectivos que el Ayuntamiento considere como línea estratégica de trabajo, de forma que desde un principio los cursos sean gratuitos para estos ciudadanos.»

* Se suprimen los párrafos primero y segundo del artículo 9 y se añade uno nuevo, con la siguiente redacción:

«La subvención ordinaria será como máximo del 85 % de la matrícula del curso.»

«En cuanto a los gastos de alojamiento en centros de internamiento, el Ayuntamiento subvencionará hasta un máximo del 50 %.»

Una vez modificado, el único párrafo que sustituye a los dos apartados queda redactado como sigue:

«Los porcentajes y cantidades máximas de subvención se recogerán en la convocatoria que se publique anualmente.»

EK\CV GAO-I-2025-01785

* Aldatu egiten da 9. artikuluaren 3. paragrafoaren hasiera, honela jasota zegoen testua:

«Halere, matrikularen kostuaren % 100 jasoko dute 6. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzeaz eta egiaztatzeaz gain, ondorengo baldintza hauetakoren bat ere betetzen dutenek.»

Behin aldatuta, honela geratuko da:

«Halere, matrikularen kostuaren % 100 jasoko dute, betiere urteko deialdian ezarritako gehienezko kopuruaren mugapean, 6. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzeaz eta egiaztatzeaz gain, ondorengo baldintza hauetakoren bat ere betetzen dutenek.»

* Aldatu egiten dira 9. artikuluan zehazten diren urteko deialdian jaso beharrekoak, honela jasota zegoen testua:

«Udalak ikasturte bakoitzerako argitaratzen den deialdian honakoak erabakiko ditu, gutxienez:

— Ikasleak ikasturte batean jaso dezakeen gehienezko kopurua.

— Autoikaskuntza ikastaroen kasuan, Udalak lagunduko duen gehienezko kopurua ikasleko eta ikasturteko.

— Barnetegietako ostatu gastuen gehienezko kopurua ikasleko eta ikasturteko.

— C1 edo C2 ikastarorik egin duen ikasleak jaso dezakeen gehienezko kopurua.»

Behin aldatuta, honela geratuko da:

«Udalak ikasturte bakoitzerako argitaratzen den deialdian honakoak erabakiko ditu, gutxienez:

— Dirulaguntza arruntaren ehunekoa.

— Ikasleak ikasturte batean jaso dezakeen gehienezko kopurua.

— Autoikaskuntza ikastaroen kasuan, Udalak lagunduko duen gehienezko kopurua ikasleko eta ikasturteko.

— Barnetegietako ostatu gastuen ehunekoa eta gehienezko kopurua ikasleko eta ikasturteko.

— C1 edo C2 ikastarorik egin duen ikasleak ikasturteko jaso dezakeen gehienezko kopurua.»

* Erantsi egiten da bigarren paragrafo bat 10 artikuluan ordainketa egiteko zehaztapenetan:

«2. Habek euskaltegian matrikulatzeko ezarritako baldintzek eragotziko balute aipatutako ordainketa euskaltegiari zuzenean egitea, Udalak ordaindu ahal izango dio aurrerapena herritarrari, eta neurriak hartuko ditu herritarrak euskaltegiari ordainduko diola bermatzeko.»

* Aldatu egiten da 10 artikuluaren azkeneko paragrafoa, honela jasota zegoen testua:

«Gutxieneko % 85eko asistentzia bete ez dutenei Udalak aurreratutako matrikularen % 100 itzultzeko eskatuko die.»

Behin aldatuta, honela geratuko da:

«Gutxieneko % 75eko asistentzia bete ez dutenei Udalak aurreratutako matrikularen % 100 itzultzeko eskatuko die.»

Aipatu aldaketa argipideketa publikora eta interesatuen entzunera jarri zen, 30 egunez, eta horren aurrean erreklamaziorik ez eta iradokizunik aurkeztu ez denez, behin betikoz onartutzat geratzen da plenoko akordioan ezarritakoaren arabera, eta hori berori jendaurrera jakitera ematen da apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatuaren indarrez, aldaketaren behin betiko testua, iragarki honi goain atxikirik doana izanik.

Interesatuek bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo dezakete, Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan ad-

* Se modifica el inicio del apartado 3 del artículo 9, que queda redactado como sigue:

«No obstante, percibirán el 100 % del coste de la matrícula quienes, además de cumplir y acreditar los requisitos establecidos en el artículo 6, cumplan alguno de los siguientes requisitos.»

Una vez modificado quedará:

«No obstante, percibirán el 100 % del coste de la matrícula, dentro del límite máximo establecido en la convocatoria anual, quienes, además de cumplir y acreditar los requisitos establecidos en el artículo 6, cumplan alguno de los siguientes requisitos.»

* Se modifican las previsiones de la convocatoria anual que se detallan en el artículo 9, que queda redactado como sigue:

«El Ayuntamiento, en la convocatoria que se publique para cada curso escolar, determinará, como mínimo:

— Número máximo de alumnos/as en un curso académico.

— En el caso de los cursos de autoaprendizaje, el Ayuntamiento apoyará el número máximo de.

— Número máximo de gastos de alojamiento en centros de internamiento por alumno y curso.

— Número máximo de alumnos/as que han realizado cursos de C1 o C2.»

Una vez modificado quedará:

«El Ayuntamiento, en la convocatoria que se publique para cada curso escolar, determinará, como mínimo:

— Porcentaje de subvención ordinaria.

— Número máximo de alumnos/as en un curso académico.

— En el caso de los cursos de autoaprendizaje, el Ayuntamiento determinará el máximo por alumno/a y curso.

— El porcentaje y número máximo de gastos de alojamiento por alumno/a y curso.

— El máximo que podrán percibir los/as alumnos/as por curso que han realizado cursos de C1 o C2.»

* Se añade un segundo párrafo al artículo 10 en las especificaciones de pago:

«2. En el caso de que las condiciones establecidas por Habe para matricularse en el euskaltegi impidieran la realización directa del citado pago al euskaltegi, el Ayuntamiento podrá abonar el anticipo al ciudadano y adoptará las medidas necesarias para garantizar que el ciudadano abone al euskaltegi.»

* Se modifica el último párrafo del artículo 10, que queda redactado como sigue:

«A quienes no hayan cumplido la asistencia mínima del 85 %, el Ayuntamiento les exigirá la devolución del 100 % de la matrícula adelantada.»

Una vez modificado quedará:

«A quienes no hayan cumplido la asistencia mínima del 75 %, el Ayuntamiento les exigirá la devolución del 100 % de la matrícula adelantada.»

Como quiera que durante el trámite de información pública, no se ha presentado reclamación o sugerencia alguna, de conformidad con lo previsto en el referido acuerdo plenario, dicha modificación queda aprobada definitivamente, lo cual se hace público en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, siendo el texto definitivo de la modificación el que se inserta anteriormente.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo

EK\CV GAO-I-2025-01785

ministrazioarekiko auzi-helegitea jarriz bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Andoain, 2025eko martxoaren 3a.—Andoni Alvarez Lete, alkatea. (1785)

del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Andoain, a 3 de marzo de 2025.—El alcalde, Andoni Alvarez Lete. (1785)

EK\CV GAO-I-2025-01785